



ATAUNGO UDALA

2022ILAN0002

Enpleguaren Behin Behinekotasuna Murrizteko 20/2021 Legetik eratorritako Egonkortzeko Prozesua Merezimenduen behin betiko balorazioa eta funtzionario izateko proposamena

Plaza:,-.. Liburutegiko administraria.- C eskalako C1 azpieskalako

Aipatutako plaza lehiaketa bidez betetzeko hautaketa-prozesua deitu zen iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdien barnean, betiere 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrien arabera. Epaimahai kalifikatzaileak, 2024ko martxoaren 18ko saioan, merezimenduen behin betiko balorazioa eta azken kalifikazioak onartuta erabaki du GARAZI ETXEBERRIA BARANDIARAN proposatzea deialdiaren xede den plaza funtzionario gisa betetzeko.

Proposatutako hautagaiak deialdiko oinarrietan eskatzen diren hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintzen honako egiaztagiri hauek aurkeztu beharko ditu Udaleko Erregistroan, gehienez ere 20 egun balioduneko epean –jakinarazpen hau Ataungo udalaren WEB orrian argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita–:

1. Kargu publikoak betetzeko ezgaituta ez dagoela eta diziiplina-espediente bidez Administrazio Publikoaren zerbitzutik kendu ez dutela dioen adierazpena.
2. Herri Administrazioen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bateraezintasun-arrazoiren batean sartuta ez egotearen adierazpena.
3. Korporazioak zehazten dituen zerbitzu medikoek emandako ziurtagiri medikoa, oinarri hauen arabera dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzea eragozten duen gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik ez duela egiaztatzen duena. Ezgaitasuna duten hautagaiek organo eskudunaren ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko dute, izaera hori eta lanpostuaren berezko eginkizunak betetzeko gaitasuna egiaztatzen dituen.
4. Eskabide-orriak aurkezteko epea amaitzen den egunean titulua edo hori lortzeko moduan dagoela egiaztatzen duen agiriaren fotokopia konpultsatua eta deialdiaren oinarrietan eskatzen diren gainerako betekizun espezifikoak egiaztatzea.

Aurreko edozein kasutan, uko egiten badu edo ez dela gai edo gaitasun mugatuak dituela ondorioztatzen bada, proposatutako hautagaiak kontratatua izateko eskubideak galduko ditu.


Deialdia arautu duten oinarrietan jasotakori jarraituz, kontratatuari 3 hilabeteko probaldia egingo zaio eta udalean bertan egingo da,



ATAUNGO UDALA

2022ILAN0002

Ataunen, sinadura elektronikoaren datan.

Sinatzailea	ALKATEAK MARTIN ARAMENDI ARANA
	Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/15/AAAAA69C3.sksj